





# URIETA 1.118m



# URIETA 1.118m.

**MENDIKATEA:** Salvada

**DISTANTZIA GUZTIRA:** 4 kilometro

**DENBORA:** ordu bat eta 45 minutu igoera eta jaitsiera.


**ZAILTASUNA:** txikia

**MAPA:** 86 OROZKO

**INGURUAK:** Pico Aro -1.127m-, Eskutxi -1.187m-, ...

**IRISPIDEAK:** Añes, Peña Angulo, Ahedo Angulo...

**LANDAREDIA:** larrea, belardia, pegoa, urkia, haritza (*quercus pyrenaica*), ...



Proposatzen den ibilbidea Salvada edo Gorobel mendizerran kokatzen da, Arabako ipar-mendebaldeko muturrean, Kantabriar-mediterraneanar isurialdeen banalerroan. Mendizerra honek Arabako Aiara harana, Bizkaiko Urduña herria, eta Burgosko Losa haranaren zati bat mugatzen ditu. Angulo mendatera-720m- errepidez heltzeko hau izango da bidea: Gasteiz, Iruña Oka, Espejo, San Martin de Losa, eta hemendik gurutzea hartu mendatearen gainera ailegatu arte.

Hego-ekialdeko norabidean hasiko dugu ibilbidea, 900 metrotara dagoen Carrascosa muino ezagunagatik apurka-apurka altuera lortuko dugu, bide ondoan erraustuta dagoen otso-toki bat aurkitu arte.

Momentu honetan ibilbideak norabidea aldatuko du, ezkerretara, ipar-ekialdeko norabidean, eta pagadi argi eta xarmagarri batetik igoko gara. Berehala, 1000 metrotara dagoen iturri bat aurkituko dugu, hemendik tontorreraino heltzen den pista bat ateratzen da.

Geroago, bihurgune itxi batek ekialdeko norabidea hartzera behartuko gaitu, eta hemendik oso hurbil ezkerretara, Urietaren gailurra (1.118 metro) agertuko da. Mendiaren goiko partean eta larre baten gainean postontzia dago. Bizkaiko Padura mendizale taldeak jarri zuen postontzi hau 1960. urtean. Hemendik hegoalderantz eta mendebalderantz begiratuta, oso ikuspegi polita dago. Ikus daitezke: Burgosko Salvada mendizerra, ipar-mendebaldean Bizkaiko Triano mendiak eta Aiarako Aroko haitza, Eskutxi...

Pistatik jarraituz, minutu gutxitara, hurrengo gailurra agertuko zaigu, Moscajero (1.138 metro). 2007. urtean Euskal Mendizaleen Federazioak egindako txosten baten arabera, Moscajero izenarekin ezagutu behar genuen mendi hauen taldea, izan ere, hau da gailurrik altuena, eta ez Urieta.

Aipatzekoa da San Miguel el Viejo izena duen kobazuloa, 800 metrotara dago, Urieta mendia eta otso-tokiaren azpian. Kobazulo hau kanpoko surgentzia naturala da eta osatuta dago hor dagoen sistema geologikoan, kareharrizkoa. San Miguel ibaia pasatzen da hortik eta urtzaroetan eta euriteetan ur-jausi ikusgarriak agertzen dira. Kobazulora hurbiltzeko bi modu daude: bata otso-tokirantz joan eta heldu baino lehen, ibaiaren arrora hurbiltzen den bidetik jarraitu; eta bestea, errazena, ibaiaren ibilguaren ondoan ibili, oztopo batzuk gaindituz, kobazuloaren sarrerara ailegatu arte. Posible da ur-jausiaren jaitsiera, horretarako horma ezberdin batzuetatik (45, 25 eta 50 metrotakoak hurrenez hurren) rapelatu behar da 50 metroko azken horma batera ailegatu arte. Kordada finkatzeko 8 milimetroko spit zulatuta dituzten uztai batzuk daude.

Gogoratu behar da artzakurrak daudela, beraz, kontuz ibili beharko da eta ez hurbildu, ez txakurrengana, ez zaintzen dituzten animaliengana; horrela gerta litezkeen liskarrak ekidingo ditugu.



**URIETA ABIZENA.** Euskaratik dator eta hiribilduen aniztasuna esan nahi du. (uri: hiribildua; eta: aniztasuna).

Euskaldun jatorria duen leinu batena da, Aiarakoa, hain zuzen ere, Amurrioko oinetxe batekin lotuta baitago. Geroago, eta gauza askorengatik, Bergarako San Prudentzio auzora aldatu zen adar bat, hor oraindik aurki dezakegu "Urieta" baserria. Eskoriatzako Gellao auzoan ere izen bera daukan baserri bat dago.

Armen entseinan lurrarekiko duen sustraitzea adierazten da: <Nai-ta-ez urietan jayo urietan azi ta urietan il>. Abizen hau hiru bertsiotan aurki daiteke: Urieta, Sáenz de Urieta y Ortiz de Urieta.

# URIETA 1.118m.

**MACIZO:** Salvada

**DISTANCIA TOTAL:** 4 kilómetros

**TIEMPO:** 1 hora y 45 minutos subida y bajada.


**DIFICULTAD:** baja

**MAPA:** 86 OROZKO

**ALREDEDORES:** Pico Aro -1.127m-, Eskutxi -1.187m-, ...

**ACCESOS:** Añes, Peña Angulo, Ahedo Angulo...

**VEGETACIÓN:** pasto, pradera, haya, abedul, roble (*quercus pyrenaica*), ...



El recorrido que se plantea se sitúa en la Sierra Sálvada o Gorobel en el extremo noroccidental alavés, divisoria de aguas cantábrico-mediterránea. Forma los límites entre el valle alavés de Aiara, el enclave vizcaíno de Urduña y parte del valle burgalés de Losa. Para llegar por carretera al puerto Angulo -720m- habrá que seguir el trayecto Gasteiz, Iruña de Oca, Espejo, San Martín de Losa y aquí tomar el cruce hasta el alto del puerto.

Se comenzará tomando disposición sureste y se irá paulatinamente ganando altitud por la conocida loma de la Carrascosa, situada a unos 900 metros, hasta encontrar una lobera derruida junto al camino.

Es en este momento cuando la marcha cambiará de dirección hacia la izquierda, orientación nordeste, y se ascenderá por un claro y atractivo hayedo sin librar desnivel. Pronto, se encontrará una fuente situada a unos 1.000 metros de altitud, a la cual se une una pista que servirá de guía hasta coronar la cima.

Más tarde, una curva pronunciada obligará a cambiar a dirección este, donde muy cerca y en el sentido de la marcha que se lleva, a la izquierda, aparecerá la cumbre propuesta del Urieta 1.118 metros. En la parte más alta del monte Urieta y, sobre una pradera, se encuentra un buzón colocado en el año 1960 por el vizcaíno Club Alpino Padura. Desde aquí se pueden observar hacia el sur y oeste unas vistas espléndidas de la sierra Sálvada burgalesa, los montes bizkaitarras de Triano al noroeste y las cumbres ayalesas de Peña de Aro, Eskutxi, ...

Continuando por la pista se descubre, a pocos minutos, la siguiente cumbre denominada Moscadero -1.138 metros- que, según Euskal Mendizale Federazioa en el informe del año 2007, así es como debería denominarse el conjunto montañoso por ser este el punto más alto, en detrimento de Urieta.

Hay que remarcar la existencia de una cueva de nombre San Miguel El Viejo, ubicada a unos 800 metros, debajo del monte Urieta y de la lobera. Esta cueva representa ser una surgencia externa y natural formada en el sistema geológico que la comprende, calizo, y que la recorre el río San Miguel que, en épocas de deshielo y fuertes lluvias forma unas atractivas cascadas. Existen dos maneras de acercarse a esta cueva, una sería dirigiéndose hacia la lobera y, antes de llegar, continuar por un sendero que se acerca hasta la cuenca del río; y otra, la más sencilla, sería caminar junto al cauce salvando algunos obstáculos hasta lograr la bocana de la cueva. El descenso a la cascada es posible rappelando las distintas paredes de 45, 25 y 50 metros, respectivamente, hasta llegar a una última pared de otros 50 metros. Para asegurar la cordada existen unas anillas con spits perforados de 8 milímetros.

Conviene advertir de la presencia de perros mastines, por lo que habrá que prestar atención y no acercarse ni a los canes ni a los animales que cuidan, evitando de esta manera posibles encontronazos.



**EL APELLIDO URIETA.** Procedente del euskera, significa pluralidad de villas (uri: villa; eta: pluralidad).

Pertenece a un linaje de origen vasco y, más concretamente ayalés, al vincularse a una casa solariega de Amurrio. Posteriormente y por diversos avatares se trasladó una rama hacia el barrio de San Prudencio situado en Bergara, donde todavía aún se conserva el caserío con el nombre "Urieta". También aparece otro caserío con el mismo nombre en el barrio de Gellao sito en Eskoriatza.

En la divisa de las armas muestra el arraigo a la tierra: «Nai-ta-ez urietan jayo urietan azi ta urietan il». Este apellido puede encontrarse en tres versiones: Urieta, Sáenz de Urieta y Ortiz de Urieta.

## CONDE DON VELA

Erdi Aroan, Angulo mendate zaharra Kantauritik Gaztelako mesetara sartzeko erabiltzen zen. Baina gaur egun, ahaztuta dago eta landarediaz estalita, dena den, arretaz begiratuta posible da ikustea harrian egindako zulo baten aztarnak. Duela urte asko eta asko, XI. Mendearen erdialdean, toki honetan oso gauza garrantzitsua gertatu zen: elezaharraren arabera, Aiara harana Don Vela kondeari eman zioten, eta gertaera honek markatu zuen Aiara Lurraldean bilakaera.

Aragoiko Don Vela infantea pertsonaia ospetsua izan zen, gure garaietara heldu da Aiara haranari izen hori ematen lehenengoa izen zelako. Erregeak, Aiara harana emanaz saritu omen zuen berak egindako zerbitzuengatik, eta horrela esan zion: "Señor, Aya la" (har ezazu), eta geroztik bere izena izan zen Aiarako Don Vela kondea.

1035. urtean jaio zen Aragoiko erregearen familiaren barruan eta Bartzelonako Kondeen Etxearen damaren familiaren barruan. Kementsua eta ausarta izateko ospea zuen; arabiarrak bota zituen Arabatik eta Errioxatik, eta Lur Santuan beste soldadu kristau batzuekin borroka egin zuen eta garaile sartu zen Jerusalem 1099ko uztailaren 15ean. Gertaera honek ekarri zuen bere armarrian gehitu ahal izatea Jerusalemgo bost gurutzetako orla bat atzealde urdinaren gainean.

Hil zenean Respalditzako Santa Maria elizan hilobiratu zuten, Aiara Etxeko Jaunaren titulua hartu zuen betiko, geroago titulu hori bere semeak, Don Vela Velazquezek jaso zuen.



El viejo puerto de Angulo -en la actualidad olvidado y cubierto por la vegetación pero que si se observa con detenimiento es posible descubrir restos de un boquete horadado en la piedra- constituyó ser una vía medieval que daba entrada a la meseta castellana desde el Cantábrico. En tiempos lejanos, a mediados del siglo XI, en este enclave sucedería un hecho que marcaría el devenir de las Tierras de Aiara, ya que según la leyenda, se concedería el valle de Aiara o Ayala al conde don Vela.

El infante Don Vela de Aragón, resultó ser un célebre personaje que ha llegado a nuestros tiempos por ser el primero que denominaría a este valle como actualmente lo conocemos, Valle de Ayala o Aiara. Al parecer, el rey le recompensaría los servicios prestados cediéndole al Conde el Valle con la frase "Señor, Áya la" (téngala), pasando a llamarse Conde don Vela de Ayala.

Nace en el año 1.035 en el seno de la familia del rey de Aragón y la dama de la Casa de los Condes de Barcelona. Obtuvo fama de ser valeroso y valiente, distinguiéndose por ser el que expulsara a los árabes de Araba y La Rioja o formar parte del grupo de soldados cristianos que lucharon en Tierra Santa donde entró triunfante en Jerusalén el 15 de julio de 1.099. Este hecho le supuso poder añadir una orla de cinco cruces de Jerusalén sobre fondo azul.

A su muerte recibió sepultura en Santa María de Respaldiza quedando definitivamente como señor de la Casa de Ayala, título que recibiría su hijo don Vela Velázquez.